

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ricardo Mugartegi Aulestiarte

*Berriatua,
Bizkaia
(1927-2010)*

Aurkibidea



Biografia



Xemeingo (gaur egun Markina-Xemein) Urberuaga auzoko Ateun Beko baserrian jaio zen 1927an. Aita bertakoa zuen eta ama Markinako Txatxangoa. Beraien etxea udaletxez Markina-Xemein da, baina elizaz Berriatua. Umetan 14 urtera arte auzoko eskolan ibili zen; gerrak iraun zuen bitartean, urte betez ez zuten eskolatik izan. 22 urte gaz ezkondu eta gero, Berriatura joan zen bizitzera. Baserriko lanetan eta tailerrean aritu izan zen beharrean. 30 urtez zerrategian aritu zen; azken 18ak kamioi-gidari legez. 1989ko abenduan izan ziren sute ikaragarrien ondorioz, jaioetxea eta inguruko lurrak eta basoak erre zitzaizkien, ezinezkoa izan zen ezer salbatzea minutu gutxitan kiskali baitzen etxea. [Bere anaia](#)rekin batera egin zitzaizkion elkarriketak.

Zintak

BRT-008

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarriketatzailea(k):** Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-05-05
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

BRT-009

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarriketatzailea(k):** Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-05-12
- **Iraupena:** 147 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Etxea fronte erdian

- **Erref:** BRT-008/003

- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:03:38. **Bukatu:** 00:06:11

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerran 10 eta 15 urte zituzten. 1936ko urritik 1937ko apirilera arte, frontea izan zuten etxe alboan. Erasoen erdi-erdian zegoen beraien etxea: alde batetik, gorriak; eta, bestetik, faxistak.

2. Ez biderik, ez argirik, ez urik....

- **Erref:** BRT-008/004
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:06:11. **Bukatu:** 00:07:27

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Etixerako ez zuten biderik, gurdi-bidea baino ez. Ez zegoen ez biderik, ez telefonorik, ez urik, ezta argirik ere. Ura baldeetan ekartzen zuten.

3. Hurbileko emaztea

- **Erref:** BRT-008/007
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:10:31

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Ricardo 1927. urtean jaio zen. 21 urtera arte, Berriatuko beste etxe batera ezkondu arte, Ateun Bekon bizi izan zen. Sasoi hartan gaitza zen urruneko andrea topatzea, bertako erromeriara joaten baitziren.

4. Errepublikara garaiko eskola

- **Erref:** BRT-008/009
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:10:44. **Bukatu:** 00:13:42

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Jose Mari errepublika garaian ibili zen eskolan, errepublikak iraun zituen 5 urteetan. Errepublika aurretik Espainiako bandera zuten eskolan eta gerora errepublikako bandera. "Catecismo" eta "Historia Sagrada" kendu zituzten ikasgaien artetik. Abadeak ematen zien dotrina.

5. Abadeari errespetua

- **Erref:** BRT-008/010

- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:13:42. **Bukatu:** 00:15:40

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Abadeek gerra aurretik ez zuen gerora izango zuen boterea eta indarra. Abadeari txapela kenduta agurtu behar zitzaion. Abadeak eurak ere ez ziren pertsona arrunt bezala janzten, beraien soinekoa eta buruko koroa eramaten zuten. Abadeari eta medikuari "don" esaten zitzaion.

6. Ikasi gutxik egiten zuten, aukerarik ez

- **Erref:** BRT-008/012
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:15:45. **Bukatu:** 00:19:49

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Maisu-maistrak erdaldunak ziren. Bertoko jendeak ez zuen ikasteko aukera askorik, hori dela-eta, kanpotik etorritakoak izaten ziren. Bertokoak eskolatik irteten eta beharrean hasten ziren, baserrian ez bada kanpoan, baina lanean. Markinako eskola laborala zabaldu zutenean hasi zen jendea tituluak izaten. Baserri askotan gutxi bidaltzen zituzten umeak eskolara; beraienean, eskolak zuen lehentasuna. Eskolatik etxera ordu erdiko bidea zuten.

7. Karburoa eta farola

- **Erref:** BRT-008/013
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:19:49. **Bukatu:** 00:20:58

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Argirik ez zutenez karburoa erabiltzen zuten; kortan, oster, ezerk su ez hartzeko farola erabiltzen zen.

8. Maisu-maistrak auzoan bizi ziren

- **Erref:** BRT-008/015
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:21:33. **Bukatu:** 00:22:41

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Maisu-maistrak kanpotik zetozen, auzoan bertan bizi ziren.

9. Jatorduetako errezoa

- **Erref:** BRT-008/016

- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:22:41. **Bukatu:** 00:23:47

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Beste ezertan baino gehiago errezatzen ikasten zen lehen, jatorduetan ere beti errezatzen zen.</p>

10. Mezara nahi eta nahi ez

- **Erref:** BRT-008/017
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:23:47. **Bukatu:** 00:25:46

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Lehen inor ez zela nekatzen dio, gaur egun ostera, erraz esaten da hori. Mezara ere oinez joaten ziren, goizeko zazpietakora. Eguraldi txarra egon arren eta ilunpetan joan behar izan arren nahitaezkoa zen. Mezara joaten ez zena seinalatua izaten zen.

11. Eratzuna zigor bezala

- **Erref:** BRT-008/019
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:26:20. **Bukatu:** 00:29:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Eskolan ez zieten euskaraz berbetan uzten, ezta errepublika sasoian ezta Franco garaian ere. Euskaraz egiten zuenari eratzun bat ematen zion maistrak, eta eskurik esku aldatzen joaten zen. Jolas-orduan eratzuna zuenak ezin zuen irten. Eskolan dena ikasten zuten gaztelaniaz; beraz, zer edo zer ikasi zuten. Maistra euskalduna izan arren, alperrik, ezin zen egin.</p>

12. Solfeo eta akademia beharrik ez

- **Erref:** BRT-008/021
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:31:24. **Bukatu:** 00:33:04

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Gaur egun soinua jotzen ikasteko solfeoa ikasten da. Lehen, ostera, soinu-

jotzaileak lanean ikasten zuen, ganadua zaintzen-eta. Ogibide asko ikasteko, askotan norberak ordaindu behar zion ugazabari erakuts ziezaion.</p>

13. Medikuak eta abadeak etxera

- **Erref:** BRT-008/022
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:33:04. **Bukatu:** 00:35:21

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Ricardok dio hobe dela ez bizitzea, antzina bezala bizi orduko. Lehen gaur egun baino bizi-iraupen laburragoa zegoen; hala ere, medikuarenera oso gutxitan joaten ziren. Askotan medikua bera joaten zen etxera, sarritan abadea bera ere gure Jauna emateko.</p>

14. Erromeriak; neska-laguntzen

- **Erref:** BRT-008/024
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:35:42. **Bukatu:** 00:37:58

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Lehengo usadioa erromeriara joatea zen. Neskak dantzan hasten zirenean hurbiltzen ziren gizonezkoak eurengana, sarritan kalabazak jasotzen zituzten. Neskari etxera laguntzen zitzaion, neska-laguntzen; askok horrela aurkitzen zuten ezkongaiak. Berriatuko, Oletako eta inguruko jaietako erromerietara joaten ziren sarri. Auzoko jaietan gonbidautzak egoten ziren, eta iluntzean erromeria.</p>

15. Dantza egiteko gizonezkoek ordaindu behar

- **Erref:** BRT-008/025
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:37:58. **Bukatu:** 00:40:07

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Gizonezkoek ordaindu egin behar izaten zuten Erromerian dantza egin ahal izateko. Ermita inguruetan edo herri txikietan bakarra egoten zen kobratzen; baina leku handiagoetan gehiago egoten ziren, eta ezin zen korro batetik bestera joan, berriro ordaindu behar zelako. Baltseoan zein soltean egiten zuten. Nahiz eta inor ez erakutsi trebeak ei ziren dantzan.

16. Neskatan

- **Erref:** BRT-008/026
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:40:07. **Bukatu:** 00:41:39

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Neskatan egitea norberaren abildadearen arabera zen. Neska berarekin behin eta berriro dantzan eginda, "neu etorko naz laguntza" esan eta neskaren erantzunaren arabera hasten zen erlazioa edo ez. Denbora luzez etxera lagunduta harremana sendotu eta gero ezkontzen ziren.

17. Musuak eta zirriak

- **Erref:** BRT-008/027
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:41:39. **Bukatu:** 00:43:23

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Musuak eta zirriak bekatu izan arren egiten zirela dio Jose Marik. Ricardok dio, musua kontu sakratua zela, zirriak errazago egiten zirela; ezkondu aurretik musu gutxi eman zituela uste du.</p>

18. Konfesioak; penitentziak

- **Erref:** BRT-008/028
- **Iraupena:** 0:04:38. **Hasi:** 00:43:23. **Bukatu:** 00:48:01

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Neska-lagunarekin egindako zirriek eta emandako zirriek seigarren mandamendua urratzen zuten. Abadeek ea bakarrik ezer egiten zuten eta zenbat bider galdetzen zuten. Egi guztiak kontatzen zituzten, gaur egun izanez gero, Ricardok dio ez zutela berdin egingo. Zein penitentzi jartzen zizkieten aipatzen dituzte. Egun zehatz batzuetan konfesatzen ziren, Pazkotan eta Arrosarioko Ama Birjinaren egunean, adibidez. Abade ezezagunarekin gusturago konfesatzen ziren; askotan fraidea egoten zen.</p>

19. Ezkondu osteko konfesioak

- **Erref:** BRT-008/029
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:48:01. **Bukatu:** 00:48:57

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Ezkundu ostean, ea umea izateko edo ez izaten zituzten harremanak galdetzen zien abadeak; umerik ez izateko ezer egitea bekatua zen.

20. Frontoia bedeinkatzeari ukatu

- **Erref:** BRT-008/032
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:50:14. **Bukatu:** 00:52:26

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Berriatuan abade asko ezagutu dituzte: don Txirriskilo, don Pelix bikarioa, don Matias, don Juan... Don Pelix bikarioa frontoi berria bedeinkatzera ukatu zen, dantza-lekua ez zuelako bedeinkatuko.

21. Errepublikan gotzainari ezetza

- **Erref:** BRT-008/033
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:52:26. **Bukatu:** 00:53:59

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Errepublika sasoian, gotzaina elizara etorri behar zela-eta, alkatea kexatu egin zen eta ezin izan zioten burdinazko gurutzea zegoen tokia egin harrera. Errepublikan elizak ez zuen indarrik.

22. Mezak, sermoiak eta janzkera

- **Erref:** BRT-008/034
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:53:59. **Bukatu:** 00:58:16

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Abadea aldarera begira zegoela eta latinez ematen zuen meza. Natibitate egunean hiru meza egoten ziren. Sermoiak pulpitutik botatzen zituzten, nahiko gogorrak izaten ziren. Ejerzizioetan askotan kanpoko abaderen bat ekartzen zuten. Sermoia, oster, euskaraz izaten zen. Andrazkoak mantilarekin joan behar izaten ziren elizara arrosarioa eskuetan zutela, eta ez ziren gizonezkoen alderdi berean jesartzen. Iluntzeko mezarako, oinetako dotoreagoak janzten ziren eta bide erdian aldatzen zituzten.</p>

23. Dirua elizara botatzeko baino ez

- **Erref:** BRT-008/035
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:58:16. **Bukatu:** 01:00:11

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Gosaria mezatik bueltan etorritakoan egiten zen etxean, sekula ere ez kanpoan. Jendea diru barik irteten zen kalera, neskak batez ere. Baina elizara bota beharreko dirua bai eramaten zuten aldean, besterik ez, baina hori falta barik.</p>

24. Errazionamendua, kupoa entregatzea, errotak itxita, estraperloa

- **Erref:** BRT-008/039
- **Iraupena:** 0:04:47. **Hasi:** 01:11:48. **Bukatu:** 01:16:35

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ez zuten goserik pasatu gerra sasoian. Gerraostean hasi zen errazionamendua, baina beraiek ez zuten askoren beharrik baserri handi zen beraiena-eta. Baserri bakoitzak kupoa entregatu behar izaten zuen: artoa, indaba... Errotara gauez joan behar izaten zen galarazita zegoelako ehotzea. Dendari batzuk estraperloan aritzen ziren. Irina ere estraperloan egoten zen, baina orduan ere baserritarrek ez zuten beharrik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com